



| |
|--|
| IRAKASGAIA: GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL) |
|--|

| |
|---------------------------------------|
| SORKUNTZA ETA DISEINUKO GRADUA |
|---------------------------------------|

| |
|------------------------------|
| 4. MAILA (18 KREDITU) |
|------------------------------|

DESKRIPTOREA

Nahitaez egin beharreko 18 kredituko lan bat da, graduaren azken seihilekoan egingo dena. Lan teoriko-praktiko bat izango da, epaimahai baten aurrean aurkeztu beharko dena, eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egiteko erabiliko da.

Proiektu pertsonal bat egin beharko da, eta horren bidez ikasleak egiaztatu beharko du, mailako gaitasunak ez ezik, graduako gaitasunak ere eskuratu dituela. Lanaren atal hauek egin behar dira:

- Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa.
- Zati praktikoa.
- Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea.

Metodologia ikaslearen lan autonomo baten bidez garatuko da, eta lan horretan ikasleak informazioa bilatu, txostenak edo dosierrak idatzi eta lanaren zati praktikoa egin beharko ditu. Ikasleak berak aukeratutako tutoreak proiektua gidatu eta aholkularitza lanak egingo ditu, beharrezkoa den jarraipen akademikoa bermatzeko eta finkatutako ikaskuntza helburuei modu egokian erantzuteko.

TESTUINGURUAN KOKATZEA

Gradu Amaierako Lana graduako laugarren mailako bigarren lauhilekoan egiten da. Ikaslearen ikasketak eta prestakuntza osatzen du, gradudun izateari begira. Graduaren lehenengo bi mailak komunak dira Arte Ederren Fakultatean irakasten diren beste graduekin. Hirugarren eta laugarren mailan, ordea, sorkuntzan eta diseinuan sakontzen da. Maila horietako hautazko irakasgaiak hiru espezialitate hauetan egituratzen dira: Ilustrazioa, Diseinu Grafikoa eta Eskultura: Zeramika; ikasleak espezialitate bat eratzeko hauta ditzake hautazkoak, edo haren interesekoak diren beste irizpide batzuen arabera.

Lau ikasturtetan egituratuta, lehenengo bi mailetan irakasgaiak urtekoak dira, eta hirugarren eta laugarrengoan, berriz, lauhilekokoak. Lauhileko bakoitzak 30 ECTS kreditu izango ditu, eta guztira 60 ECTS kreditu egin beharko dira, ikasturteko. Graduako irakaskuntzak lau multzotan egituratuko dira: oinarrizko gaiak, nahitaezko gaiak, hautazko gaiak eta Gradu Amaierako Lana.

Gradu Amaierako Lana 4. mailan egiten da, eta nahitaezko irakasgai hauen bidez osatzen da: *"Ikusizko Kultura Garaikidearen Testuinguruak eta Praktikak"*,

“Sorkuntza eta Berrikuntza Prozesuak eta Metodologiak” eta “Profesionalizazioa eta Kudeaketa”; bai eta lehen lauhilekoari esleitutako hautazko irakasgaien bidez ere: “Zeramika eta Sorkuntza”, “Zeramika eta Diseinua”, “Ikusizko Kultura eta Hezkuntza”, “Ontziratzea eta Enbalajea”, “Grafika Editoriala, Grafika Teknologikoa”, “Ikusizko Nortasuna”, “Komunikazioa Euskaraz: Arteak”, “PaperArt: Paper Zuntzak Sorkuntza Artistikoan. Produkzioa eta Edizioa”, “Prototipoa eta Edizioa”, “Irudikapen Sistemak”.

GAITASUNAK ETA IKASKUNTZAREN EMAITZAK

Gradu Amaierako Lana gradudunaren ibilbide akademikoaren azken ariketa da, eta lan horretan tituluaren prestakuntza prozesuei erantzun osoa eta pertsonala eman beharko die gradudunak. Prozesu horiek zeharkako gaitasunetan, mailako gaitasunetan eta gaitasun espezifikoenetan daude jasota, eta Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren ikaskuntzaren emaitza pertsonal gisa zehazten dira.

Hala, **laugarren mailako gaitasunak** (graduako txostenean jasotakoak) honako hauek dira:

4.M. 1.G Sorkuntzari eta diseinuari lotutako prozedurak, teknologiak, teknika eta materialak kontrolatzea, askotariko testuingurutan (Ilustrazioa, grafikoa eta objektuen esparrua: zeramika) (Lotuta dauden tituluaren gaitasunak: G001, G002, G003, G004, G005).

4.M. 2.G “Ilustrazioa, diseinu grafikoa eta objektuaren eremua: zeramika” arloei lotutako proiektuen garapenean sakontzea. (Lotuta dauden tituluaren gaitasunak: G003, G004, G008, G009).

4.M. 3.G Azalpen eta adibideen teknikak aplikatzea, proiektuetatik eratorritako ideia, arazo eta konponbideei buruzko informazioa transmititzeko ahoz, bisualki nahiz idatziz. (Lotuta dauden tituluaren gaitasunak: G007).

4.M. 4.G Inplikaturako sektoreen kudeatze eta profesionalizatzeko sistema, beren funtzionatzeko mekanismoak eta eskakizunak ezagutzea, bere esparruan profesionalki txertatu ahal izateko. (Lotuta dauden tituluaren gaitasunak: G009).

4.M. 5G Jarduera artistikoan, gizartearen berezko gizabanako-taldearen erlazioaren alderdiak ezagutzea. Gizarteak artista garaikideari eska diezaiokeenari lotuta, nork bere gain hartzea sorkuntza prozesua eta sorkuntza bera. (Lotuta dauden tituluaren gaitasunak: G008, G009, G010)

4.M. 6.G Proiektu berritzaileak garatzeko sorkuntza eta berrikuntza metodologiak ezagutzea, graduari lotutako diziplinen arloan. (Lotuta dauden tituluaren gaitasunak: G002, G009)

Espezifikotasunera eta profesionalizaziora (graduako txostenaren arabera) bideratutako **laugarren mailako ikaskuntzaren emaitzak** honako hauek dira:



E4.1. Ikasleak diseinu diziplinaren eta sorkuntza arloko berezko prozedurak, teknologiak eta materialak aplikatuko ditu, bere proiektu pertsonalen zehaztapenean.

E.4.2. Ikasleak beren proiektuaren emaitza argitasunez transmititzeko gai izango dira.

E.4.3. Ikasleek ilustrazioaren, diseinu grafikoaren edo zeramikaren eremu espezifikoetara buruzko proiektuetan sakonduko dute.

E.4.4. Ikasleek metodologia sortzaile eta berritzaileak aplikatuko dituzte ikasgelan planteatutako proiektuetan.

GRALaren gaitasun espezifikoak (Graduaren txostenetik jasotakoak) honako hauek dira:

1. GE Proiektu bat aurkezteko modua graduaren eremu eta espezialitateetan aplikatzea.
2. GE Gradu amaierako lana graduari lotutako arlo profesionalarekin lotzea.
3. GE Egindako lanari buruzko dosierak eta txostenak egiteko gai izatea.
4. GE Sorkuntza baliabideak proiektuen beharretara egokitzeko gai izatea.
5. GE Proiektu bat egiteko beharrezkoa den informazioa bilatzeko, aztertze eta txertatzeko gaitasuna.
6. GE Analisi autokritikorako gaitasuna, egindako proiektuaren testuinguruan.
7. GE Lana diziplina espezifikoaren arazoetan eta gizarte testuinguruan kokatzeko gai izatea.
8. GE Beste lan batzuen analisisian eta balioespenean parte hartzeko gaitasuna.
9. GE Proiektuari ekarpen pertsonalak eta berritzaileak egiteko gai izatea.

Gradu Amaierako Lanerako ikaskuntza espezifikoaren emaitza (Graduko txostenaren arabera) honako hau izango da:

E.4.1. Ikaslea bere proiektuaren emaitza argitasunez transmititzeko gai izango da.

IRAKASKUNTZA METODOLOGIA

Irakaskuntza metodologia bat etorriko da gaitasunen (espezifikoak eta tituluari lotutakoak) egiaztapen egokia lortzeko finkatutako helburuekin, eta gogoetarako, ekoizpenerako eta erabakiak hartzeko prozesu autonomoak sustatuko ditu ikasleengan.

Gradu Amaierako Lanak (GRAL), irakaskuntza erregularrik gabeko 18 kredituko irakasgai gisa, dedikazio pertsonalerako eta zuzendariarekin egin beharreko tutoretza saioetarako 10 ordu ezartzen –Graduaren txostenean– ditu; nolana ere, irakasleak lanaren jarraipenerako programa bat ezar dezake ikaslearekin batera, ikasketen gidaliburu honetan eskatutako ikasketak eta adierazitako helburuak bermatzeko.

Tutoretza prozesuaren jardueren koordinazioak bermatu egin beharko du ikasleak erantzun egokia eta pertsonala ematen diela GRALa osatzen duten hiru atalei eta GRALaren gaitasun espezifikoetan adierazitako Graduaren gaitasunen garapenari. Ikasgelaz kanpoko lanerako eta lan autonomoa egiteko 170 ordu ezarri dira (gradu txostenaren arabera) ($170 + 10 = 180$ ordu).

ZUZENDARIA, HURA ESLEITZEA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA

Gradu Amaierako Lanak (GRAL) graduan irakaskuntza duen sail bateko irakasleek edo graduan eskolak ematen dituzten irakasle atxikiek zuzenduko dituzte, eta zuzendari bat baino gehiago aukeratu daiteke. Irakaslea arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, lanaren garapenean hura orientatzeaz eta ezarritako helburuak beteko direla bermatzeaz, baita jarraipena egin eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idazteaz ere. Era berean, ikasleak Gradu Amaierako Lana egiteko baliabideak edukitzeaz arduratuko da, ikastegiaren posibilitate errealean arabera.

Unibertsitateko beste sail edo ikastegi batzuetako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago, graduan eskolak ematen dituen sail batekoa edo gradua ematen duen ikastegiari atxikitakoa. Ikasleak Gradu Amaierako Lan osoa edo haren zati bat praktiketako hitzarmen baten esparruan gauzatzen badu UPV/EHUtik kanpoko instituzio edo erakunde batean, Gradu Amaierako Lana unibertsitatetik kanpoko langileek zuzendu ahalko dute. Kasu horretan ere, ezinbestekoa izango da arestian adierazitako baldintzak beteko dituen zuzendarikide bat izatea.

Ikastegiko Batzarrak edo hark horretarako izendatzen duen batzordeak, sailekin eta idazkaritzarekin lankidetzan, Gradu Amaierako Lanari buruzko prozedura bat idatzi eta argitaratuko du, matrikulatzeko epea amaitu aurretik. Bertan azalduko du nola esleituko diren zuzendariak eta gaiak, bai eta lana zein hizkuntzatan egin eta defendatu ahal izango den ere.

EBALUAZIO SISTEMA



Araudi orokorrean jasota dagoen moduan, ikasleak saio publiko batean bere lana defendatu ondoren, epaimahai batek Gradu Amaierako Lana (GRAL) ebaluatu eta kalifikatuko du. Epaimahaiak (hiru kidek osatutakoa) hautatzeko, kontuan hartuko dira hizkuntza irizpideak eta irakasleen afinitatea, proiektuaren planteamenduarekiko. Epaimahaiak sailek osatuko dituzte modu koordinatuan, Ikastegiarekin lankidetzaz.

Ebaluazioan, epaimahaiko kideek kontuan har dezakete tutoreak emandako txostena, eta kontuan hartu beharko dituzte modu haztatuan Gradu Amaierako Lana (GRAL) egiteko eta defendatzeko berariaz eskatutako ikaskuntzaren eskakizunak eta emaitzak, gaitasunen garapen egokiaren egiaztapen akademikoa egiteari begira:

1. **Zati praktikoa.** (Haztapen tarte honen barruan: % 50-70).
2. **Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea.** (Haztapen tarte honen barruan: % 10-20).
3. **Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa.** (Haztapen tarte honen barruan: % 15-30).

GRADU AMAIERAKO LANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak GRALa osatzen duten hiru zatiak ebaluatuko ditu banaka:

- Zati praktikoa: proiektua
- Aurkezpena eta defentsa
- Dokumentazioa edo dosierra

GRALaren zatiak ebaluatzen direnean, ebaluatzen dira ere esleitutako gaitasun espezifikoak eta tituluaren gaitasun orokorrak.

Epaimahaiak jarraian aipatutako irizpideak kontuan hartu, aldatu eta/edo beste batzuk ezar ditzake.

| | | | |
|-------|--|------------|------|
| GRALa | | Irizpideak | Nota |
|-------|--|------------|------|

| | | | |
|---|--|--|--|
| <p>Zati praktikoa</p> <p>Proiektua</p> <p>GRALari egokitutako gaitasun espezifikoak:</p> <p>2.GE</p> <p>4.GE</p> <p>5.GE</p> <p>6.GE</p> <p>7.GE</p> <p>8.GE</p> <p>9.GE</p> | | <ul style="list-style-type: none"> - Proposamen pertsonala egiteko gaitasuna - Berrikuntza proposamenean / Proiektuaren interesa - Proiektua garatzeko metodologia - Lan autonomoa - Lanaren dimentsioa/kantitatea - Proposamenarekin koherenteak diren emaitzak - Tekniken eta materialen kontrola eta aplikazioa (Trebetasun teknikoak) - Emaitzaren kalitatea - Analisi kritikoa / gogoeta | |
| <p>Aurkezpena eta defentsa</p> <p>GRALari egokitutako gaitasun espezifikoak:</p> <p>1.GE</p> <p>6.GE</p> | | <ul style="list-style-type: none"> - Argitasuna eta ordena - Hiztegi espezifikoaren erabilera - Segurtasuna argudioak defendatzean | |
| <p>Dokumentazioa/Dosierra</p> <p>GRALari egokitutako gaitasun espezifikoak:</p> <p>1.GE</p> <p>2.GE</p> <p>3.GE:</p> <p>5.GE</p> <p>6.GE</p> <p>8.GE</p> | | <p>Antolatua egotea</p> <p>Argitasuna eta ordena</p> <p>Lanaren dimentsioa/kantitatea</p> <p>Bisualki interesgarria / erakargarria</p> <p>Terminologia egokia erabiltzea</p> <p>Dokumentazioa eta bibliografia</p> <p>Analisi kritikoa / gogoeta</p> | |

KALIFIKAZIO PROZESUA

1. Epaimahaiak, GRALren defentsa egin aurretik, GRALeko zati bakoitzari azken kalifikazioan esleituko zaion balioa (%) ezarri, eta ezagutzera emango du. Balioa haztaperen eskala honen arabera zehaztuko da (% 100aren gainean):

* **Zati praktikoa:** amaierako notaren % 50 eta % 70 artean.

* **Prozesuari buruzko informazioa eta gogoetak biltzen dituen dokumentazioa:** amaierako notaren % 15 eta % 30 artean.

* **Egindako lana epaimahai baten aurrean azaltzea eta defendatzea:** amaierako notaren % 10 eta % 20 artean.

2. Epaimahaia, lana eta haren defentsa publikoa ikusi ondoren, Otik 10era kalifikatuko ditu zati guztiak eta amaierako kalifikazio bakarra emango du.

3. Kalifikazio partzial guztiak batzearen emaitza 3 kalifikazio partzial izango dira; kalifikazio partzial horietako bakoitza haztatu egingo da epaimahaiak alde aurretik zehaztutako ehunekoaren arabera, eta horren batuketak azken kalifikazio bat emango du, Otik 10erako eskalan eta dezimal batez adieraziko dena. Kalifikazio horri dagokion kalifikazio kualitatiboa gehituko zaio:

| | |
|-----------|----------------|
| 0 – 4,9 | Gutxiegia (G). |
| 5,0 – 6,9 | Nahiko (N). |
| 7,0 – 8,9 | Oso ongi (OO). |
| 9,0 – 10 | Bikain (B). |

Indarreko ikasturteko GRAL guztiak kalifikatu ondoren, “ohorezko matrikula” eman ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei. Hala ere, ohorezko matrikulen kopurua ez da izango ikasturtean gai horretan matrikulatutako ikasleen % baino handiagoa.

Gradu Amaierako Lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko ebaluazio araudian aurreikusitakoari jarraiki egingo dira; dena den, kasu honetan epaimahai bat dagoenez, ebaluazioaren lehen berrikuspena epaimahaiak berak egingo du. Ondoren, Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Unibertsitateko errektoreari.

PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

GRALa aurkezteko eta defendatzeko ekitaldi publikoan, ikasleak bere proiektua prest edukiko du Ikastegiak egokitutako gunean eta egunean, epaimahaiko kideek bertatik bertara ikus dezaten. Gainera, ikasleak ahozko defentsa egiteko 15 minutu izango ditu gehienez, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, edukiak, metodologia, eta lana gauzatu arteko prozesua azaldu beharko ditu.



Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eskari, iruzkin edo iradokizunei erantzun beharko die.

Ikaslearen obra aurrez aurre ikusi ondoren eta zuzendariaren txostena irakurritakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du GRALaren gidaliburuan argitaratutako irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko txostenean ezarritakoari jarraiki. GRALaren behin-behineko kalifikazioa argitaratuko da defentsa amaitu eta ondorengo 24 ordu baino lehen gehienez.

Ikasleak lana gainditzen ez badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egiteko. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.